

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Arte Eszenikoak

USE 2021

www.ehu.eus





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2021eko EZOHIKOA

ARTE ESZENIKOAK

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2021

ARTES ESCÉNICAS

Azterketa honek HIRU atal ditu. Atal bakoitzeko bi galderetako bati erantzun behar diozu.

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Ez ahaztu azterketa-orri bakoitzean kodea jarri behar duzula.

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu. Azterketako bi aukerek atal berak dituzte (hiruna atal).

1. atala. Antzerki-obraren iruzkina eta analisisa (4 puntu).

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisa:

- a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
 - Antzerki-generoa (0,5 puntu).
 - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
 - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu).
 - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (0,5 puntu).
- a) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
 - Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa, egilearen ideia artistikoak (1 puntu).
 - Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikan kokatzen den eta garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (1 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak.

2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu).

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (1 puntu).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko, estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (1 puntu).
- Ikasturtean zehar izandako esperientziak (eta ikusitako lan eszenikoak) oinarri hartuta, deskribatu nola konpondu zenuten edo nola konponduko zenituzkeen eszenaratzean inplikaturako alderdiak (adibidez, kritikariak aipaturakoak) (1 puntu)

3. atala. Termino teknikoei buruzko galderak (3 puntu)

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2021eko EZOHIOA

ARTE ESZENIKOAK

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2021

ARTES ESCÉNICAS

1. ATALA – Iruzkina eta azterketa. Bietako bat aukeratu. (4 puntu)

- a) Eugene Ionesco. *Abeslari burusoila*.
- b) Yasmina Reza. *Artea*.

2. ATALA – Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina. Bietako bat aukeratu. (3 puntu)

- a) Sofokles. *Antigona*.
- b) Bertolt Brecht: *Kaukasiar krezko borobila*.

3. ATALA – Hamabi termino tekniko hauetatik SEIren definizioa eman. (3 puntu)

1. Supermarioneta
2. Ekintza-batasuna
3. Oroitarazlea edo hitz-emailea
4. Ohitura-komedia
5. Drama erromantikoa
6. Hondoko oihala
7. Biomekanika
8. Naturalismoa
9. Politxinela
10. Maskarada
11. Ezkutatu
12. Koreografoa

2021

1. ATALA. Iruzkina eta analisisia.

a) Eugene Ionesco. *Abeslari burusoila*. VIII. eszena

SMITH ANDREA: Presa handia ez duzunez, kapitaina, egon pixka bat gehiago. Mesede bat egingo diguzu.

SUHILTZAILEA: Pasadizoak kontatzea nahi al duzue?

SMITH ANDREA: O, oso ona, xarmagarria zara! (*Besarkatzen du*).

SMITH JAUNA, MARTIN ANDREA, MARTIN JAUNA: Bai, bai, pasadizoak! Primeran! (*Txalotzen dute*).

SMITH JAUNA: Eta are interesgarriagoa dena da suhiltzaileen pasadizoak benetakoak eta bizitakoak direla.

SUHILTZAILEA: Nik neuk bizi izan ditudan gauzez hitz egiten dut. Natura, natura baino ez. Ez liburuak.

MARTIN JAUNA: Hain justu ere: egia ez da liburuetan aurkitzen, bizitzan baizik.

SMITH ANDREA: Has zaitez!

MARTIN JAUNA: Has zaitez!

MARTIN ANDREA: Isilik, hasi.

SUHILTZAILEA (*hainbatetan eztul eginez*): Barkatu, baina ez niri horrela begiratu. Deseroso jartzen nauzue. Badakizue lotsatia naizela.

SMITH ANDREA: Xarmagarria da! (*Besarkatu egiten du*).

SUHILTZAILEA: Edonola ere, hasten saiatuko naiz. Baina zin egin iezadazue ez didazuela adituko.

MARTIN ANDREA: Baina aditzen ez badizugu, ez dizugu entzungo.

SUHILTZAILEA: Ez nuen horrelakorik pentsatu!

SMITH ANDREA: Esan dizuet jada: haurra da.

MARTIN JAUNA, SMITH JAUNA: Ai, haur maitea! (*Besarkatu egiten dute*).

MARTIN ANDREA: Ausardia!

SUHILTZAILEA: Beno, hasi egingo naiz. (*Berriro eztul egiten du, eta emozioa dardarka jartzen duen ahotsarekin hasten da.*) "Txakurra eta idia", fabula esperimentalak: behin batean, beste idi batek beste txakur bati galdetu zion: zergatik ez duzu zeure tronpa irentsi? Barkatu, erantzun zuen txakurak, elefantea nintzela pentsatu nuelako da.

MARTIN ANDREA: Zein da irakaspena?

SUHILTZAILEA: Zeuek aurkitu behar duzue.

SMITH JAUNA: Arrazoi duzu.

SMITH ANDREA (*amorrus*): Beste bat.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2021eko EZOHIKOA

ARTE ESZENIKOAK

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2021

ARTES ESCÉNICAS

1. ATALA. Iruzkina eta analisisia.

b) Yasmina Reza. *Artea*

MARC: Koadro hau ez duzu zuri ikusten, Yvan?

YVAN: Ez, guztiz ez...

MARC: A, ja. Eta zer koloretakoa ikusten duzu?...

YVAN: Koloreak ikusten ditut... Horia, grisa, lerro okrexka batzuk ikusten ditut...

MARC: Eta kolore horiek hunkitu egiten zaituzte.

YVAN: Bai... kolore horiek hunkitu egiten naute.

MARC: Ivan, ez zara tinkoa. Izaki hibridoa eta biguna zara.

SERGE: Zergatik zara halako oldarkorra Yvanekin?

MARC: Gortesaua delako, morroia, diruaz liluratua, berak kultura dela uste duenaz liluratua dagoelako, eta nik errukirik gabe oka egiten dut kultura horren gainean.

Isilune labur bat.

SERGE: ... Baina zer gertatzen zaizu?

MARC: (YVANI.) Nola egin dezakezu, Ivan?... Nire aurrean. Nire aurrean, Yvan.

YVAN: Zure aurrean, zer?... zure aurrean, zer?... Bai, jauna. Kolore horiekiko sentikorra naiz. Eta zer! Eta utzi behingoz gainerakoei zure irizpidea ezartzeari.

MARC: Nola esan dezakezu, nire aurrean, kolore horiekiko sentikorra zarela?...

YVAN: Egia delako.

MARC: Egia? Kolore horiek hunkitzen zaituzte?

YVAN: Bai. Kolore horiek hunkitzen naute.

MARC: Kolore horiek hunkitzen zaituzte, Yvan?!

SERGE: Kolore horiek hunkitzen dute. Eskubide osoa du!

MARC: Ez, ez du eskubiderik.

SERGE: Nola ez du eskubiderik?

MARC: Ez du eskubiderik.

YVAN: Ez dut eskubiderik?!...

MARC: Ez.

SERGE: Eta zergatik ez du eskubiderik? Badakizu azkenaldian ez zaudela batere ondo, medikuari bisita beharko zenioke.

MARC: Ez du eskubiderik kolore horiek hunkitzen dutela esateko, gezurra delako.

IVAN: Ez nautela hunkitzen kolore horiek?!

MARC: Ez dago kolorerik. Ez dituzu ikusten. Beraz, ez zaituzte hunkitzen.

IVAN: Hitz egin zeureaz!

MARC: A ze itsusia, Yvan!...

SERGE: Baina, nor zara zu, Marc?!... Nor zara zu zure legea ezartzeko? Ezeri estimu egiten ez dion morroi bat, jende guztia gorrotatzen duena, bere garaiko gizona ez izateaz harro dagoena...

MARC: Zer esan nahi du bere garaiko gizona izateak?

YVAN: Ciao. Ni banoa.

SERGE: Nora zoaz?

YVAN: Banoa. Ez dakit zergatik jasan behar ditudan zuen «kontu txarrak».

SERGE: Zu hemen geratuko zara! Ez egin orain saminduarena... Alde egiten baduzu, arrazoia ematen diozu.

(YVAN geratu egin da, zalantzati.)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2021eko EZOHIKOA

ARTE ESZENIKOAK

*EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD*

EXTRAORDINARIA 2021

ARTES ESCÉNICAS

Bere garaiko gizona bere garaian bizi den gizona da.

MARC: Ederra ergelkeria. Nola bizi daiteke gizon bat bere garaian ez den beste garai batean? Azaldu hori niri.

2021



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2021eko EZOHIKOA

ARTE ESZENIKOAK

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2021

ARTES ESCÉNICAS

2. ATALA - Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.

a) Ullateren 'Antigona' bikaina

José Manuel Villafaina / *el Periódico de Extremadura*, 2019/07/23

https://www.elperiodicoextremadura.com/noticias/cultura/sublime-antigona-ullate_1176671.html



Argazkia: <http://www.artezblai.com/artezblai/antigona-victor-ullate-65-festival-de-teatro-clasico-de-merida.html>

[...] Gezurra dirudi, hainbeste mende igarota (K.a. 441), obra honek halako gaurkotasuna izatea, hain hunkigarri gertatzea. Agerian uzten du giza izaeraren atemporalitatea, zeinak jarraitzen baitu «tirania» edo «nagusikeria» hitzak entzuten munduan, eta, gainera, gizateria bera bezain zaharrak diren sentimenduez mintzo da. [...]

Oraingoan, Víctor Ullateren konpainiak, bere ballet-ikuskizunen zigilu bereziarekin, Tebaso Zikloaren sintesi bati buruzko ezohiko bertsio bat eskaini digu: Ediporen kondairan eta haren seme Eteoklesen eta Polinizesen arteko geroko gerran izandako gertaeren segida narratzen duten tragedien zati lotuak dira, eta, batez ere, Antigona (Sofoklesen jatorrizko obra) gaiaren bertsio leial eta aratz baten zentratuta dago. Sublimazio-tragediaren bertsio bat da, eta garapena oso ondo ulertzen da. Antigona heroiak odolaren legeak defendatzen ditu Kreon erregearen epaiaren aurrean, zeinak debekatu egin baitu Polinizes —Antigonaren anaia eta Tebas hiriarren setiatzailea— hilobiratzea, eta hain egokiro absolututzat hartzen diren balio guztiak erabiltzen ditu: bizia, espiritua, kontzientzia indibiduala eta maitasuna. [...]

Elementu artistiko guztiak aberastu egiten dute muntaketa: Curt Allen Wilmer-en eszenografia burutsua —elkartutako zenbait bidoi multzoz osatua, Luis Perdiguerok ikusgarriro argiztatuak espazio solemne ugari sortuz, eta Iñaki Cobosen jantzi zoragarriak; guztiak aberasten dute ikuskizuna. Araztuta ageri da ikuskizunean M. Béjarten teknikaren dantza-espíritu sakratu eta sentsuala (Ullateren maisu handia izan zen Béjart), obraren



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2021eko EZOHIKOA

ARTE ESZENIKOAK

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2021

ARTES ESCÉNICAS

narratibaren azpitemu bikainean inplizitua; txirikorda bat balitz bezala ehundutako bilbea da, eta koadro eszeniko ikusgarriak sortzea lortzen du musika eta erritmo biziko atmosferetan. Sortzaileek zeinuen bila egindako lanaren emaitza da, eta aukera ematen dio ikusleari harago joateko esentzial eta poetikorantz traspasatzen duen lengoia aurkituan, plazer estetikoa, plazer dinamikoa eta plazer emozionala baita.

Dantzari talde osoaren lan zehatz eta koordinatuak protagonistek adina liluratu zuen. Dantzari guztiak, benetan hezur-haragizko izakiak, *Antigonan* bizia harturik, beren sentsibilitatea aske uzten ausartu ziren —berek dauzkaten gorputz diziplinatu, entrenatu eta taxutuekin—, ekintza koreografiko eta dramatikoaren adierazle bihurtuta; hala, solo, duo eta beste pauso mota batzuen artean txandakatuz joaten dira, ikusleoi emoziozko dardara eraginez. [...]

Oro da distira, gorputzaren zehaztasun matematikoarekin, haien koreografiatan: beso eta hanka adimendunak behar dira, haiei berme ematen dieten gorputzetatik harago bizirik daudenak; maitasunaren eta heriotzaren duetan ageri da haien gailurra. [...]

Víctor Ullate Ballet konpainia, 2019. **Zuzendaritza/Koreografia:** Víctor Ullate eta Eduardo Lao. **Eszenografia:** Curt Allen Wilmer. **Argiztapena:** Luis Perdiguero. **Jantziak:** Iñaki Cobos. **Protagonista nagusiak:** Lucía Lacarra, Josué Ullate

2021



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2021eko EZOHIKOA

ARTE ESZENIKOAK

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2021

ARTES ESCÉNICAS

2. ATALA - Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.

b) "Kaukasiar kreaazko borobila"-ri hilaren 27an emango zaio Donostia Antzerki Saria. Félix Ibargutxi / *Diario Vasco*, 2006-03-21

<https://www.diariovasco.com/pg060321/prensa/noticias/Cultura/200603/21/DVA-CUL-327.html>



Argazkia : https://www.bigorre.org/publication/2007-12-14_le-cercle-de-craie-de-brecht-vu-du-pays-basque

Kaukasiar kreaazko borobila antzerki-lanak irabazi du Euskararen Udal Patronatuak eta Donostia Kulturak antolatutako VI. Donostia Antzerki Saria.

[...] Epaimahaiak nabarmendu du gutxitan ikus daitekeela neurri eta maila horretako antzezlan bat euskaraz. Izan ere, emanaldietan hamabost aktore jardun ohi dira, eta erakustaldi fisikoa egiten dute; eta aktoreez gain, kontalari-kantari bat, lau musikari eta abeslari bat jarduten dira, oso lan intensoa egiten dutelarik. Epaimahaikideen esanetan, lan honen beste berezitasunetako bat eszenografia da: ikusleak eremu eszenografikoan bertan kokatzen baitira, erdian, eta beraien inguruan jarduten dira aktoreak.

Salomonen parabola batean oinarritu zen Bertolt Brecht antzezlanaren idazteko. Hau da antzezlanaren abiapuntua: gerra denboran, eta Hitlerren soldaduak laster azalduko diren beldurrez, Galinsk landetxeko ahuntzainek alde egiten dute, lur haiek aldi baterako utzita. Gerra bukatutakoan, itzultzen dira paraje haietara, eta ikusten dute nekazari batzuk jabetu direla lurraz, eta fruta-arbol batzuk landatu nahian daudela. Antzezlanaren hasieran, bi talde horien arteko eztabaida ikusten da, eta antzezlanak herrien nortasunaz eta identitateaz egiten du gogoeta batik bat.

Itxaro Bordak egin du euskarazko bertsiorako moldapena, eta zuzendari-lanean Jean-Marie Broucaretek jardun du. Bidasoaz bi aldeetako aktoreak egiten dute lan [...]



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2021eko EZOHIOA

ARTE ESZENIKOAK

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2021

ARTES ESCÉNICAS

Theatre de Chimeres eta Pok Produkzioak, 2006. **Bertsioa eta itzulpena:** Itxaro Borda. **Zuzendaritza:** Jean-Marie Broucaret. **Eszenografia:** Annie Onchalo. **Argiztapena:** Pierre Auzase. **Musika:** Pascal Gaigne.

2021



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

1.- Alderdi orokorrak

2019ko urtarrilaren 14ko PCI/12/2019 Aginduak zehazten du zer ezaugarri, diseinu eta eduki izan behar dituen unibertsitatera sartzeko Batxilergoko ebaluazioak 2018/2019 ikasturtean (2019ko urtarrilaren 15eko BOE).

Batxilergoko titulua edo haren baliokideren bat dutenentzako probaren helburua hau da: ikaslearen heldutasun akademikoa objektiboki balioestea, eta Batxilergoan eskuratutako ezagutzak eta gaitasuna eta graduko unibertsitate-irakaskuntza ofizialak egiteko gaitasuna baloratzea.

2016ko irailaren 6ko 127/2016 Dekretuak EAEko Batxilergorako berezko curriculum ezartzen du. Curriculum hori dago indarrean gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, estatuko oinarrizko curriculum ezartzen duen araudian ezarritakoaren kalterik gabe. Horrenbestez, 127/2016 Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa du erreferentziatzat Arte Eszenikoen azterketak.

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/es_2_proyec/adjuntos/Decreto_127_2016_bach_c.pdf

Geroago, Hezkuntza Sailak eduki-blokeen eta adierazleen (edo ebaluazio-estandarren) garapen osoa argitaratu du, orientagarri izan dadin. Helbide honetan dago gai bakoitzaren curriculum osoa:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/es_2_proyec/adjuntos/Curriculum_completo_bachiller.pdf

Batxilergoko curriculumean oinarrizko eskumenak sartu direnez, justifikatuta dago *egiten jakitera* bideratutako ariketak proposatzea, ahalik eta modurik objektiboenean neurtu ahal izateko ikasleak arlo hauetan eskuratutako gaitasuna: arte eszenikoak arte-agerraldi gisa eta fenomeno unibertsal gisa ulertzea, eta obra eszenikoen eta haien autore eta emaitza nabarmenen ezagutza historiko, kultural, soziologiko eta estetikoak.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

2. – Espezifikazio-matrizea

Eduki-blokea	Ikasketa-estandar ebaluagarriak
1. blokea. Arte eszenikoak eta haien testuinguru historikoa.	<ul style="list-style-type: none">- Ingurunean dagoen ikuskizun eszeniko bakoitza identifikatzen du haren ezaugarrien arabera.- Antzeppen mota bakoitzaren ezaugarriak azaltzen ditu, hiztegi espezifiko eta egokia erabiliz.
2. blokea. Adierazpen eta komunikazio eszenikoa.	<ul style="list-style-type: none">- Zuzen eta zehatz erabiltzen ditu adierazpen eta komunikazio eszenikoan parte hartzen duten elementuei dagozkien kontzeptu guztiak.
3. blokea. Interpretazioa arte eszenikoetan.	<ul style="list-style-type: none">- Interpretazioaren teoriak ezagutzen ditu, eta modu arrazoituan azaltzen.
4. blokea. Antzeppena eta eszenaratzea.	<ul style="list-style-type: none">- Zehazki identifikatzen ditu rolak eta rol bakoitzaren berezko egitekoak.
5. blokea. Ikuskizun eszenikoak jasotzea.	<ul style="list-style-type: none">- Testu dramatikoaren eta antzerki-ikuskizunen ezaugarriak identifikatzen ditu, eta gogoetak egiten ditu, espiritu kritikoz, haien ezaugarri eta oinarriei buruz.- Kritika eszenikoak egiten ditu, zorrotz eta sendo, terminologia egokia erabiliz.- Fenomeno artistikoaren konplexutasuna ulertzen du, eta bere ondorioak ateratzen ditu gaian eskuratutako ezagutza berriro landuz.

3. - Ebaluatzeko irizpideak

2016ko irailaren 6ko 127/2016 Dekretuan gai honi buruz dauden ebaluazio-irizpideak hartuko dira erreferentziatzat proba zuzentzeko eta baloratzeko. Proposatutakoaren artean, hauek azalduko ditugu, proposatutako ariketa-ereduan duten garrantzia dela eta:

1. Arte eszenikoen oinarrizko kontzeptuen eta antzerkiaren historiaren ezagutza sendoa eta kritikoa frogatzea bere produkzio eszenikoan erabiliz.

- Ikuskizun eszenikoen modalitate guztien aldiak, autoreak eta obra nabarmenak ezagutzen eta kokatzen ditu.
- Arte eszenikoen teknizismoak ezagutzen eta aplikatzen ditu.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

- Ondare eszenikoaren alderdiak integratzen ditu berak sortutako ikuskizun batean.
 - Euskal antzerkiaren historiaren eta jardueraren alderdi bereizgarriak ezagutzen ditu.
- 2. Identifikatu, ulertu eta azaldu egiten ditu antzezpen-forma bakoitzaren eta ikuskizun eszenikoaren oinarrizko ezaugarriak askotariko tipologiako obren azterketaren bidez.**
- Arte eszenikoen generoak identifikatzen ditu.
 - Fenomeno eszenikoaren termino espezifikoak identifikatzen eta erabiltzen ditu.
 - Ingurunean dagoen ikuskizun eszeniko bakoitza analizatzen du bere premien arabera.
- 3. Ekintza dramatikoa berregiteko, pertsonaiak diseinatzeko eta egoerak eta eszenak konfiguratzeko teknikak ezagutzea, eta proposamen eszenikoetan erabiltzea.**
- Era askotako antzerki-testuak moldatzeko eta berregiteko teknikak ezagutzen eta erabiltzen ditu.
 - Antzerki-gidoiak idazten ditu berezko markak zainduz.
 - Pertsonaiak eraiki eta era guztietako egoeretan kokatzen ditu, eta bakoitzaren berezko ekintzak garatzen.
- 4. Eszenaratze-proiektu batek dituen rol, prozesu eta faseak ezagutzea eta ulertzea, eta banako bakoitzaren atazak eta erantzukizunak baloratzea.**
- Eszenaratze-proiektu batek behar dituen rol guztien funtzioak ezagutzen ditu.
 - Askotariko atazak egiten ditu eszenaratze-proiektu batean.
 - Aintzat hartzen du konpromisoa ikuskizun eszenikoak sortzean eta erakustean.
- 5. Era guztietako testu dramatikoak eta ikuskizunak analizatzea eta iruzkinak egitea, gogoeta-jarreraz eta espiritu kritikoz.**
- Antzerki-testuen ezaugarri eta baliabide dramatikoak analizatzea eta iruzkinak egitea.
 - Antzerki-ikuskizunen ezaugarriak identifikatzen ditu, eta haiei buruzko gogoeta egiten, espiritu kritikoz.
- 6. Errealitate artistikoei buruzko oinarrizko ikerlanak egitea.**
- Lanak egiten ditu errealitate artistikoak ezagutzeko.
 - Bere ideia eta proposamen eszenikoak eraikitzen ditu besteren eruedetatik abiatuta.
 - Autoretzaren eta sortze-lizentzien kontzeptua ezagutzen eta betetzen du.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

7. Adierazpen artistiko batzuk ezagutzea eta haiei buruzko iruzkinak egitea, gogoeta-jarreraz eta espiritu kritikoz, batez ere unekoak eta bere ingurukoak.

- Ikusle gisa joaten da bere inguruko adierazpen artistiko batzuk ikustera.
- Obra klasiko eta garaikideak irakurtzen ditu begirada ludikoa eta espiritu kritikoa erabiliz.
- Uneko jarduera artistikoen ezaugarriak ezagutzen ditu.
- Antzerki-ikuskizunen iruzkinak egiten ditu, jarrera kritikoz

4.- Kalifikazio-irizpideak

Probaren A eta B aukerek atal berak dituzte. Probak antzerki-obra edo -pasarte bat izango du beti, eta, harekin batera, galdera sorta bat, eta ikasleek, modu egokian erantzungo badute, pentsamendu kritikorako eta gogoetarako gaitasuna eta heldutasuna izan behar dute. 90 minutuko iraupena izango du, eta hiru atal izango ditu.

1. atala. Obraren iruzkina eta analisisa (4 puntu)

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisa:

- a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
 - Antzerki-generoa (0,5 puntu).
 - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
 - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu).
 - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (0,5 puntu).
- b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
 - Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa (0,5 puntu).
 - Egilearen ideia artistikoak (0,5 puntu).
 - Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den (0,5 puntu).
 - Garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (0,5 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriari buruzko ezagutzak.

2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu)

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (1 puntu).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (1 puntu).
- Testuan ageri diren ideiei buruzko iritzi pertsonala, zure eszenaratze-esperientzietan oinarritua (1 puntu).



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

3. atala. Termino teknikoetarako buruzko galderak (3 puntu)

Erantzunak argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.

4.- Obra gomendatuak

1. Aristofanes: *Lisistrata*.
2. W. Shakespeare: *Hamlet*
3. Cervantes: *Gauza zoragarrien erretaula*
4. Calderón de la Barca: *Bizitza ametsa da*
5. Henrik Ibsen: *Panpinen etxea*
6. O. Wilde: *Ernesto izatearen garrantzia*
7. M. Mihura: *Hiru xistera*
8. R.M. del Valle-Inclán: *Buhame-argiak*
9. Lorca: *Bernarda Albaren etxea*
10. Bertolt Brecht: *Hirugarren Reicharen izua eta miseria («Furcht und Elend des Dritten Reiches»)*
11. Samuel Becket: *Godoten zain*
12. Harold Pinter: *Maitalea*
13. Jordi Galceran: *Gronhölms metodoa*
14. Juan Mayorga: *Azken lerroko mutila*